

## **INGURUMEN POLITIKA**

Beasain Institutuak ikasle gazteak etorkizunerako prestatu nahi ditu, ikasle bakoitzaren izaera eta egoera kontuan hartuta heziketa osoa emanez, eta gizarteko beharri zehatzak erantzuteko prestaturik.

Beasain Institutuak, bere zerbitzuek ingurumenean duten eragina kontuan hartuz, konpromiso hauek hartzen ditu bere gain: ingurumen kudeaketa sistema zehatza osatzea eta garapen iraunkorarekin bat etorriko den antolakuntza mantentzea. Konpromiso hauek, etorkizuneko belaunaldien hezkuntzan diharduen erakundearentzat, guztiz beharrezkoak dira eta kudeaketa osoan izan behar dute eragina.

Beasain Institutuak, ingurumen politikari dagokionean, konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

Indarrean dagoen ingurumen arloko legeria aplikagarria betetzea, baita bere gain hartzen dituen beste era bateko ingurumen-betebeharrak ere.

Ingurumen-politika ikastetxearen estrategian sartzea, ikastetxearen planifikazio-prozesuetan eta erabakietan ingurumen irizpideen ezarpena sustatzea.

Bere ekintzak eta zerbitzuak bideratzea kutsaduraren prebentzioan arduratsu jokatzuz, garapen iraunkorrerako ingurumenaren kalitatea babestuz eta etengabeko hobekuntzak kontuan izanez.

Ikastetxeko partaide guztiei ingurumen kudeaketa sistemari buruzko informazioa ematea eta formazio eta sentsibilizazio egitasmoak garatzea. Era berean, gure proiektuarekin harremana duten hornitzaileei, bezeroei eta gainerakoei ingurumenarekin portaera egokia izan dezaten eskatzea.

Ezarritako ingurumen politika eta urteko helburu eta helmugak etengabe berrikustea eta berregokitzea.

Ikastetxeak aldiro ingurumen-politika eta ingurumen kudeaketa jakinaraziko ditu. Hori lortzeko, erakundearen ingurumen-politika ingurumen-eskuliburuan jasoa eta eguneratua dago eta ikastetxeko irakasle eta ikasle guztiei ikasturte hasierako koadernoetan eta agendetan komunikatzen zaie. Beste langile guztiek, ikastetxearen izenean ari direnek eta kanpokoek ere, honen berri izateko aukera dute, dokumentua toki publiko batean eta web orrian baitago.

**ZUZENDARIAK**  
**Beasain, 2016ko uztailaren 1a**